

# “LAS MINAS FLAMENCO TOUR” OSTEGUN HONETAN, EKAINAREN 10EAN, EUSKALDUNAN

**Ricardo Fernández del Moralek (kantea eta gitarra) eta Yolanda Osunak (dantza) flamenkotik ibilbidea eskainiko dute ostegun honetan, kante tradizional eta funtsezkoetatik hasi eta jai-giroko beste estilo batzuetara eta abesti herrikoien bertsio flamenkoetara.**

**Ikuskizuna generoko SO-LA-NA Entertainment konpainiaren eskutik Euskaldunara heltzen diren flamenkoaren erreferentziako lanen ziklo baten barruan dago. Uztailaren 7rako aurreikusitako “Faro” obrak itxiko du programazioa**

*Bilbon, 2021eko ekainaren 7an*

SO-LA-NA Entertainment, arte flamenkoari lotutako kalitate eta benetakotasun handiko ikuskizun eskusiboaren sorkuntzan eta ekoizpenean erreferentea den konpainia, Euskaldunara itzuliko da bertan programatuta dituen hiru ikuskizunetatik bigarrenarekin. Ostegun honetan, ekainaren 10ean, izango da, “Las Minas flamenco tour” saioarekin. Uztailaren 7rako aurreikusitako “Faro” obrak itxiko du programazioa.

Ricardo Fernandez del Moralek (kantea eta gitarra) eta Yolanda Osunak (dantza) ibilbidea eskainiko dute ostegun honetan, Soleá eta Cante Minero-Levantinok kante tradizional eta funtsezkoetatik hasi eta “La bien Pagá”, Alegías, Habaneras de Cádiz edo Cuplé por bulerías bezalako kantu herrikoien bertsio flamenkoetara.

Ricardo kantaorea eta gitarrista da, eta La Unioneko Cante de Las Minas Jaialdiaren historian lehen aldiz, bost sari irabazi ditu: Malageña, Taranta, Soleá, Toná eta Minera, eta Flamenkoaren munduko saririk preziatuena jaso du, “Lámpara Minera” izenekoa.

Yolandak sariak lortu ditu nazioarteko flamenko lehiaketa garrantzitsuetan, Kordobako Lehiaketa Nazionalean eta La Unioneko Cante de las Minas, besteak beste. Dantza bihurtutako bere poesia aurkeztuko digu, flamenko tradizioz benetakoaren sentimenduari eta errespetuari irekitako atea.

Sarrerak eskuratu daitezke jadanik [www.euskalduna.eus](http://www.euskalduna.eus) webgunean eta ohiko beste kanal batzuetan 32 eurorengatik (kudeaketa gastuak barne).

### **Faro**

Eduardo Guerreroren eskutik, “FARO” esperientzia paregabea iritsiko da Euskaldunara, hamaika bataila eta ospakizun magikoren lekuko den itsasargiaren poesian inspiratutako ikuskizuna.

Guerrero, nazioartean proiektiorik handiena duen bailaore espainiarra, gizonezkoen flamenko dantzaren erreferentetzat hartzen da. La Unioneko Cante de las Minas jaialdiko “Desplante” saria lortu zuen. Eduardok teknika ikusgarria du, klasikoetatik edaten du eta eguneratu egiten ditu, eta bere interpretazio-indarrari eta bere estilo garbiari esker arte flamenkoaren bilakaera irudikatzen du.

Sarrerak eskuratu daitezke jadanik [www.euskalduna.eus](http://www.euskalduna.eus) webgunean eta ohiko beste kanal batzuetan 32 eurorengatik (kudeaketa gastuak barne).